## ASTIGARRAGAKO UDALA

*Hilerria: Titulartasunak eta araubidearen eta funtzionamenduaren arautegia.*

Astigarragako Udal hilerriaren araubidearen eta funtzionamenduaren arautegia jendaurrean ikusgai egon den aldia amaitu da, eta 2009ko maiatzaren 28an bururiko Udal osoko bilkurak behin betiko onartu zuen.

Udal erregimenari buruzko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen arabera, iragarkia bera argitaratzen da.

Astigarraga, 2009ko uztailaren 27a.—Bixente Arrizabalaga Bengoetxea, Alkatea.

(2044) (9564)

### ASTIGARRAGAKO UDAL HILERRIAREN ARAUBIDEAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN ARAUTEGIA

### I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Arautegi honen xedea udal-hilerrian zerbitzuak ematea arautzea da, eta Udalerriei esleitutako eskumenaren arabera ematen da, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, Toki Korporazioen Zerbitzuen eta Ondasunen Arautegietan, Osasunari buruzko Lege Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoan gorputzak edo gorpuzkiak garraiatzeko osasunbide-baldintzak ezartzen dituen urriaren 6ko 267/1992 Dekretuan eta uztailaren 20ko 2263/1974 Dekretuan onartutako Hileta Polizia Sanitarioaren Arautegian edo haiek ordezkatzen dituen araudian eta aplika daitezkeen gainerako araudietan hilerriei buruz aurreikusitakoa betez.

*2. artikulua.*

Barne-araubideko araudi hau Astigarragako udal-hilerrian aplikatuko da.

*3. artikulua.*

Astigarragako Udal Hilerria zerbitzu publikoari lotutako jabari publikoko ondasuna da, Toki Korporazioen Ondasunen Araubidearen 4. artikuluaren arabera (1.372/1986 Errege Dekretua), eta titularra Astigarragako Udala da. Udal horri dagokio hilerria administratzea, zaintzea eta zuzentzea, alde batera utzi gabe agintaritza judizialari eta, hala badagokie, osasun-agintaritzei dagozkien eskumenak; betiere 1372/1986 Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

*4. artikulua.*

Udalak, gauzatzen jarduerak eta zerbitzuak kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna gisa, hilerria ondo administratzeko behar diren liburuak edo erregistroak izango ditu.

Eskaerak eta kexak Udalaren Erregistro Orokorrean egingo dira, eta eskumeneko organora bideratuko dira organo horrek haien berri izan dezan eta izapideak egin ditzan.

## AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

*Cementerio: Titularidades y reglamento de régimen y funcionamiento.*

Terminado el plazo de exposición pública del Reglamento del Régimen y Funcionamiento del Cementerio municipal de Astigarraga, el Pleno celebrado el 28 de mayo de 2.009 acordó su aprobación definitiva.

Según lo dispuesto en la Ley 7/1985 del 2 de abril, de bases de Régimen Local, se procede a publicar el texto completo de dicho Reglamento.

Astigarraga, a 27 de julio de 2009.—El Alcalde, Bixente Arrizabalaga Bengoetxea.

(2044) (9564)

### REGLAMENTO DEL REGIMEN Y FUNCIONAMIENTO DEL CEMENTERIO MUNICIPAL DE ASTIGARRAGA

### CAPITULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

El presente Reglamento tiene por objeto la regulación de la prestación de los servicios en el cementerio municipal y se dicta en virtud de la competencia atribuida a los municipios y con sometimiento a lo prevenido en materia de cementerios en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en los Reglamentos de Servicios y de Bienes de las Corporaciones Locales, en la Ley General de Sanidad, en el Decreto 267/1992, de 6 de octubre, por el que se establecen las condiciones sanitarias del transporte de cadáveres y restos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria aprobado por Decreto 2263/1974, de 20 de julio, o normativa que las sustituya, así como la demás normativa de aplicación.

*Artículo 2.*

Esta normativa de régimen interior será de aplicación en el cementerio municipal de Astigarraga.

*Artículo 3.*

El Cementerio Municipal de la Villa de Astigarraga es un bien de dominio público afecto a un servicio público, conforme al artículo 4 del Reglamento de Bienes de las de las Corporaciones Locales (Real Decreto 1.372/1986), cuyo titular es el Ayuntamiento de Astigarraga, a quien corresponde su administración, cuidado y dirección, sin perjuicio de las competencias que corresponden a la autoridad judicial y en su caso a las autoridades sanitarias, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Real Decreto 1372/1986.

*Artículo 4.*

El Ayuntamiento mantendrá, como instrumento de gestión y control de las actividades y servicios llevados a cabo, los libros o registros necesarios para la buena administración del cementerio.

Las peticiones y quejas se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento, donde serán trasladadas al órgano competente para su conocimiento y tramitación.

*5. artikulua.*

Udalari dagokio Hilerria administratzeko, zaintzeko eta zuzentzeko eginkizunak gauzatzea:

a) Hilerriak ez ezik udalaren hilobi-eraikuntzak, zerbitzu komunak eta instalazioak, kaleak eta bideak, estolderia, argiteria, arbolak eta lorezaintza, eraikuntzak eta hilerrietako interes orokorrekoa den gainerako oro ere administratzea, antolatzea, zaintzea, mantentzea eta atontzea.

b) Gorpuak eta gorpuzkiak ehorztea, desehorztea, lekuz aldatzea, gordailutzea eta murriztea, baita hileta-osasunaren alorrean indarrean dagoen legediak eskatzen duen beste edozein jardun ere.

c) Ehorzteko eskubideak ematea, onartzea eta aldatzea, horien onuradunak izendatzea eta horiei buruzko tituluak izapidetzea eta ematea.

d) Lurzatiei eta hilobiei buruzko ehorzketa-eskubideak eratzea, izapidetzea, eta, hala badagokio, iraungitzea.

e) Dagokion Ordenantza Fiskalean legez ezartzen diren eskubideak eta tasak jasotzea.

f) Hilerriaren barne-araubidea, gorpuak garraiatzea barne.

g) Osasunari eta higieneari buruz dagoeneko emanda dauden edo etorkizunean ematen diren neurriak betetzea.

h) Hilerriko langileak izendatzea eta bereiztea funtzionarioak, lan-kontratupekoak eta abar diren kontuan hartuta, edo zerbitzua esleitzea.

i) Partikularrei baimena ematea hilerrietan edozein obra edo instalazio mota egiteko, baita obra horiek zuzentzea eta ikuskatzea ere.

j) Araubide hau betetzen ote den zaintzea, eta, hala badagokio, dagozkion zigorrak jartzea.

k) Udalari dagokion beste edozein eginkizun, betiere kontuan izanda Udala hilerriaren titular jabea eta udal-mugapean jarduera arautzea dagokion entitate publikoa dela.

## II. KAPITULUA

## HILERRIA ANTOLATZEA ETA GOBERNATZEA

*6. artikulua.*

Ezin izango da ehorzketarik egin hilerrien kanpoko eremuetan, eskumeneko agintarien esanbidezko baimenik gabe.

*7. artikulua.*

Gorpuen edo gorpuzkien ehorzketak, desehorzketak edo lekualdaketak higienearen eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenen arabera arautuko dira, baita arau hauetan ezarritakoaren arabera ere.

*8. artikulua.*

Astigarragako Udala arduratuko da hilerri berriaren eremuan ordenari eusteaz, baita hilerriak betetzen duen eginkizunari behar bezalako errespetua eskatzeaz ere, honako arau hauek betez:

1. Bisitariak eremuari zor zaion errespetuz ibiliko dira uneoro, eta, hala badagokio, Udalak bere eskura dauden legezko neurriak hartu ahal izango ditu arau hori betetzen ez dutenak leku horretatik atera daitezen agintzeko.

*Artículo 5.*

En el ejercicio de las funciones de administración, cuidado y dirección del cementerio, corresponde al Ayuntamiento:

a) La administración, organización, conservación, mantenimiento y acondicionamiento de los cementerios, así como de las construcciones funerarias municipales, de los servicios comunes e instalaciones, viales y caminos, red de alcantarillado, alumbrado, arbolado y jardinería, edificios y demás de interés general de los cementerios.

b) La inhumación, exhumación, traslado, depósito y reducción de cadáveres y restos humanos, y cualesquiera otras actuaciones exigidas por la legislación vigente en materia sanitaria mortuoria.

c) La concesión, reconocimiento y modificación de derechos de enterramiento, la designación de sus beneficiarios y la tramitación y expedición de los títulos referentes a los mismos.

d) La constitución, tramitación y, en su caso, extinción de las concesiones de derechos funerarios sobre parcelas y sepulturas.

e) La percepción de los derechos y tasas que se establezcan legalmente en la correspondiente Ordenanza Fiscal.

f) El régimen interior del cementerio, incluida la conducción de cadáveres.

g) El cumplimiento de las medidas sanitarias e higiénicas dictadas o que se dicten en el futuro.

h) El nombramiento y separación del personal del cementerio, ya tenga carácter de funcionario, contratado laboral, etc., o de la adjudicación del servicio.

i) La autorización a particulares para la realización en los cementerios de cualquier tipo de obras e instalaciones, así como su dirección e inspección.

j) La vigilancia del cumplimiento del presente reglamento y la imposición en su caso, de las sanciones oportunas.

k) Cualesquiera otras funciones que pudieran corresponderle, atendiendo a su carácter de titular propietario del cementerio y a su condición de entidad pública a quien compete la regulación de la actividad dentro del término municipal.

## CAPITULO II

## ORDEN Y GOBIERNO DEL CEMENTERIO

*Artículo 6.*

No podrán realizarse enterramientos fuera del recinto de los cementerios, sin la autorización expresa de las autoridades competentes.

*Artículo 7.*

Las inhumaciones, exhumaciones o traslados de cadáveres o restos se regirán por las disposiciones de carácter higiénico-sanitarias vigentes y por lo establecido en las presentes normas.

*Artículo 8.*

El Ayuntamiento de Astigarraga velará por el mantenimiento del orden en el recinto del nuevo cementerio, así como por la exigencia del respeto adecuado a la función del mismo, mediante el cumplimiento de las siguientes normas:

1. Los visitantes se comportarán en todo momento con el respeto adecuado al recinto, pudiendo, en todo caso, adoptar el Ayuntamiento las medidas legales a su alcance para ordenar el desalojo de quienes incumplieran esta norma.

2. Bere egoera dela medio edo beste kausa batzuk direla medio eremuko lasaitasuna eta ordena eten dezakeen edo begirunearen arauei eragin diezaiokeen edozein pertsonari galarazi egingo zaio hilerrian sartzea.

3. Udalak hilerriko eremuaren zaintza orokorra egingo du; nolanahi ere, ez udalak, ez bere organoetako bakar batek ere ez du bere gain hartuko hirugarrenek hilobietan egin ditzaketen lapurretak eta kalteak, eta hilerrian jartzen diren objektuetan egin ditzaketenak ere, betiere indarreko legedian aurreikusitako kasuak alde batera utzita. Era berean, hilerriko langileek ez dute inolako erantzukizunik izango horma-hobi bat irekitzerakoan partikularrek jarritako hilarriak hausten badira.

4. Debekatuta dago salmenta ibiltaria eta edozein propaganda mota egitea hilerrietako eremuen inguruan eta barruan. Debekatuta dago zakurrak edo beste animalia batzuk sartzea, bere jabearekin batera sartzen diren itsu-gidari gisa jarduten dutenak izan ezik.

5. Ehorzketa-unitateei argazkiak egiteko eta horien inguruko erreportajeak, marrazkiak eta/edo pinturak ez ezik eremu mota horri dagokion ohiko jarduerari ez dagozkion ekitaldiak ere egiteko Udalaren baimen berezia beharko da aurretik; nolanahi ere, gainerako erabiltzaileei zor zaien errespetua gordeta.

6. Hileta-obrek eta hileta-inskripzioek bat etorri beharko dute eremuaren eginkizunari zor zaion errespetuarekin. Nolanahi ere, partikularrek horma-hilobietan hilarriak eta hilobietan eta panteoietan plakak jartzeko udal-teknikarien oharrak izan beharko dituzte kontuan, eta horiek jartzeko Udalaren baimena beharko da aurretik; dena dela, emakidadunak arduratu beharko du horiek mantentzeaz eta zaintzeaz.

7. Debekatuta dago hilerri barruan piezak edo marmolak zerratzea, zatikatzea edo antzeko beste jarduera batzuk egitea. Zirkunstantzia bereziak direla medio, nahitaezkoa bada jarduera horiek egitea, udal-organo eskudunari eskatu beharko zaio baimena, eta horrek esango du zein den lan horiek egiteko leku egokia.

8. Partikularrek egiten duten obra mota oro jendearentzako irekita dagoen ordutegian egin beharko da eta hirugarrenei kalterik eragin gabe.

9. Hilerrian ezin izango da ibilgailu bakar bat ere sartu, hileta-zerbitzuek erabiltzen dituztenak eta obrak egikaritzeko materiala garraiatu behar dutenak izan ezik. Garraiobide horien titularrak garraiobide horiek hilerriko bideetan eta instalazioetan eragin ditzaketen kalteen erantzule izango dira, eta, halaber, berehala konpondu beharko dituzte, edo, hala badagokio, konponketen kostuak beren gain hartu beharko dituzte. Eragindako kaltearen titularra bertan ez badago, ibilgailu arau-hauslearen gidariak izango du horren ardura.

*9. artikulua.*

Hilerria Udalak ezartzen duen ordutegian egongo da irekita jendearentzat, betiere zerbitzuaren premien arabera. Ordutegi horren berri hilerriaren sarreran kartelak jarrita emango da.

*10. artikulua.*

Hilobiak eta hilobietako osagarriak nahiz dekorazio-elementuak konpontzeko eta kontserbatzeko lanak hilobietako titularrek egingo dituzte, eta udalak baimena onartu eta eman egin beharko die hilobi horien titularrek baimena eskatu ondoren.

2. Se impedirá la entrada al cementerio a toda persona que por su estado u otras causas pudieran perturbar la tranquilidad y orden del recinto, o afectar a las normas del decoro.

3. El Ayuntamiento realizará la vigilancia general del recinto del cementerio, si bien, ni él ni ninguno de sus órganos asumirá responsabilidad alguna respecto a robos y desperfectos que pudieran cometerse por terceros en sepulturas y objetos que se coloquen en el cementerio, fuera de los casos previstos en la legislación vigente. Así mismo el personal del cementerio no se hará responsable de la ruptura de las lápidas colocadas por los particulares, en el momento de abrir un nicho.

4. Se prohíbe la venta ambulante y la realización de cualquier tipo de propaganda en las inmediaciones y en el interior de los recintos de los cementerios. No se permite la entrada de perros u otros animales salvo aquellos que tengan carácter de lazarillo en compañía de su dueño.

5. La realización de fotografías, reportajes, dibujos y/o pinturas de las unidades de enterramiento, así como la celebración de actos que no correspondan a la actividad ordinaria de este tipo de recintos, quedarán sujetas a la previa autorización especial del Ayuntamiento, salvaguardando, en todo caso, el respeto debido al resto de los usuarios.

6. Las obras e inscripciones funerarias deberán estar en consonancia con el respeto debido a la función del recinto. En todo caso, la colocación de lápidas en los nichos y placas en las sepulturas y panteones por parte de los particulares, deberá ajustarse a las indicaciones de los técnicos municipales, y su realización requerirá la previa autorización del Ayuntamiento, siendo de cuenta del concesionario su mantenimiento y conservación.

7. Queda prohibido realizar dentro del cementerio operaciones de serrar piezas o mármoles, desguace u otras similares. Cuando por circunstancias especiales se precise hacerlo, se deberá solicitar la autorización del órgano municipal competente que designara el lugar concreto donde se tendrán que hacer estos trabajos.

8. Cualquier tipo de obra que sea realizada por los particulares deberá efectuarse asimismo durante el horario de apertura al público y esta deberá realizarse sin perjuicio a terceros.

9. Ningún vehículo será autorizado a entrar en el cementerio salvo aquellos que sean los utilizados por los servicios funerarios y los que hayan de transportar el material para la ejecución de obras. Los titulares de dichos medios de transportes serán los responsables de los daños que estos pudieran causar en los caminos e instalaciones del cementerio y estarán, asimismo obligados a repararlos inmediatamente o, en su caso, a hacerse cargo de las costas de las reparaciones. Si el titular del daño causado no estuviera presente, será responsable el conductor del vehículo infractor.

*Artículo 9.*

El cementerio permanecerá abierto al público durante el horario que establezca el Ayuntamiento, de acuerdo con las necesidades del servicio. Dicho horario se hará constar mediante colocación de carteles en el acceso de entrada al cementerio.

*Artículo 10.*

Las obras de reparación y conservación de sepulturas, y de los accesorios y elementos de decoración de las mismas, correrán a cargo de sus titulares y requerirán la aprobación y otorgamiento del permiso municipal, previa solicitud del titular de los mismos.

*11. artikulua.*

Partikularrak hilobia garbitzeko eta zaintzeko betebeharra betetzen ez badu, Udalak lan horiek egiteko eskatuko dio eskubide hori duen titularrari, eta titularrak ez baditu lanak adierazitako denboran betetzen, Udalak modu subsidiarioan egin ahal izango ditu, eta kostuak lan horiek egin behar zituztenek ordaindu beharko dituzte.

## III. KAPITULUA

## LANGILEAK

*12. artikulua.*

Udalak zerbitzu-enpresak kontratatuz edo Udaleko langileen bitartez kudeatu ahal izango du hilerriko zerbitzua. Aipatutako langileak funtzionarioak, kontratupeko langileak edo aldi baterako langileak izan daitezke, legez ezarritako baldintzen arabera.

*13. artikulua.*

Hilerria kudeatzeko ardura duten langileek honako eginkizun hauek bete beharko dituzte:

a) Eremuak zaindu eta behatu beharko dituzte, baita nekropolietan egon litezkeen altzariak, tresnak eta erremintak ere.

b) Hilerria eta hango aretoak garbitu beharko dituzte; horretaz gain, barrualdea ordenan eduki eta zaindu beharko dute. Landareak, zuhaitzak eta soropila zaindu beharko dute dagokion udal-zerbitzuaren laguntzarekin.

c) Hilerri-eremuaren barruan higieneari eta osasunari nahiz apaindurari dagokionez egon daitezkeen anomalien edo beste edozein anomaliaren berri eman beharko diote goragoko hierarkikoari.

d) Eremuak ireki eta itxi beharko dituzte adierazitako ordutegian.

e) Ehorzketak, desehorzketak, lekualdaketak eta beste zerbitzu batzuk egiteko prest egon beharko dute, betiere behar den dokumentazioa aurkeztu ondoren.

f) Gorpuzkiak eta objektuak hilerrian sartzea edo hilerritik ateratzea eragoztea, baldin eta dagokion baimenik ez badago.

g) Horma-hilobiak eta panteoiak hustu eta garbitu ostean geratzen diren arropak, gailuak eta tresnak deuseztatzeaz arduratu behar dute, eta behar bezalako baimena duten gorpuak edo gorpuzkiak desehortzi behar badira, ez dute utziko hilkutxan dauden objektuak beste inork hartzea; ehorzlearen edo lur-emailearen hutsegite oso larritzat hartuko baita hilerriko ehorztegietan egon litezkeen gorpuzkiak, jantziak, hilkutxak edo gauzak desagertzea.

h) Behar diren edozein motatako hilobiak prest eduki beharko dituzte, ezin izango baita inoiz ehorzketen martxa eten hilobiak prest ez edukitzeagatik.

i) Korporazioak agintzen dion eta hilerri-eremuetako berezko zereginari dagokionez egokia den beste edozein eginkizun.

*14. artikulua.*

Hilerria kudeatzeko ardura duten langileek erabat debekatuta izango dute:

a) Ezein zenbateko kobratzea eskupekoen, hobarien, oparien edo jantzien kontzeptupean haien karguari datxezkion zerbitzuak betetzeagatik.

b) Ehorzketak edo desehorzketak egitea dagozkion agintariei ezer esan gabe.

*Artículo 11.*

En caso de que el particular incumpliese el deber de limpieza y conservación de la sepultura, el Ayuntamiento requerirá al titular del derecho afectado y si éste no realizase los trabajos en el tiempo señalado, el Ayuntamiento podrá realizarlos de forma subsidiaria, repercutiendo su coste en los obligados.

## CAPITULO III

## DEL PERSONAL

*Artículo 12.*

El Ayuntamiento podrá gestionar el servicio del cementerio mediante la contratación de una empresa de servicios, o con personal del propio Ayuntamiento, que podrá ser personal funcionario, personal laboral contratado o personal eventual en los términos legalmente establecidos.

*Artículo 13.*

El personal encargado de la gestión del cementerio tendrá las siguientes funciones:

a) Cuidado y vigilancia de los recintos; así como del mobiliario, utensilios y herramientas que pudieran existir en las respectivas necrópolis.

b) Atender la limpieza del cementerio y sus dependencias y la ordenamentación y cuidado del interior. Cuidar las plantas, los árboles y el césped en colaboración con el correspondiente servicio municipal.

c) Dar cuenta a su superior jerárquico de las anomalías que existieran tanto de tipo higiénico sanitario, de ornamentaciones como cualquiera otras, dentro del recinto del cementerio.

d) A la apertura y cierre de los recintos, con sujeción al horario señalado.

e) Disponer la realización de las inhumaciones, exhumaciones, traslados y otros servicios, una vez presentada la documentación necesaria.

f) Impedir la entrada o salida del cementerio de restos mortales y objetos, si no se dispone de la correspondiente autorización.

g) Encargarse de la destrucción de ropas, utensilios y enseres procedentes de la evacuación y limpieza de nichos y panteones, no permitiendo que en el caso de exhumación de cadáveres o restos debidamente autorizados, sean recogidos por otra persona los objetos que hubiese en el féretro; siendo considerado falta gravísima del sepulturero o enterrador la desaparición de restos, vestiduras, féretros u objetos que hubiese en los enterramientos del cementerio.

h) Tener dispuestas las sepulturas de cualquier tipo que se precisen, no dando lugar nunca a interrupciones en la marcha de las inhumaciones por esta causa.

i) Cuantas otras funciones le sean encomendadas por la Corporación y resulten adecuadas al cometido propio de los recintos funerarios.

*Artículo 14.*

El personal encargado de la gestión del cementerio tendrá terminantemente prohibido:

a) Cobrar cantidad alguna en concepto de propinas, gratificaciones, regalos o prendas por la prestación de los servicios inherentes a su cargo.

b) Prestar servicios de inhumación o exhumación sin contar con las autoridades pertinentes.

c) Gorpuak edo gorpuzkiak profanatzeko edo manipulatzeko ekintzak gauzatzea.

d) Hilerria edo bertako instalazioak beren funtzioa desnaturalizatzen duten jarduera partikularretarako erabiltzea.

*15. artikulua.*

Ez Udalak, ezta bertako organoetako edo langileetako bakar batek ere ez du inolako erantzukizunik izango hirugarrenek hilobietan eta hilerrietan jartzen diren objektuetan egin litzaketen lapurretei eta kalteei dagokienez. Era berean, hilerriko langileek ez dute inolako ardurarik izango edozein desehorzketa gauzatzerakoan hilarriren bat edo plakaren bat hausten bada.

## IV. KAPITULUA

## ADMINISTRAZIOA

### I. ATALA. ERREGISTRO LIBURUA

*16. artikulua.*

Hilobien eta hilerrian egiten diren eragiketen Erregistro Publiko bat izango da.

Erregistro Publiko horrek honako Liburu hauek izango ditu:

a) Hilobien eta Lurzatien Erregistro Orokorra.

b) Horma-hilobien Erregistro Orokorra.

c) Ehorzketena.

d) Desehorzketena eta Lekualdaketena.

e) Jakinarazpenen sarrerena eta irteerena.

f) Erreklamazio-liburua.

Hilobien Erregistro Orokorraren, Horma-hilobienaren, Ehorzketenaren eta Desehorzketenaren eta Lekualdaketenaren ordez Erregistro Informatiko bat jarri ahal izango da.

*17. artikulua.*

Hilobien eta Lurzatien Erregistro Orokorrean honako datu hauek bilduko dira:

a) Hilobi bakoitzaren identifikazioa, kalea, zenbakia eta izena identifikatuz.

b) Eraikuntzari eta haren ezaugarriei buruzko datuak.

c) Titularraren izen-abizenak eta helbidea; ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera titularra bakarra izango da.

d) Aurkezten dituen tituluak eta titulu horiek eman zireneko data.

e) Onuradunaren edo onuradunen, baldin eta badaude, izen-abizenak eta helbidea.

f) Ondorengo eskualdaketak «inter vivos» edo «mortis causa» egintzen bidez.

g) Emakida iraungi delako edo beste edozein kausa dela medio hilobia Udalaren eskura libre geratuko den data.

h) Hilobiari eragiten dion beste edozein gertakari.

*18. artikulua.*

Horma-hilobien Erregistro Orokorrean honako datu hauek bilduko dira:

a) Horma-hilobiaren identifikazioa.

b) Ehortziko denaren izen-abizenak.

c) Realizar actos de profanación o manipulación irreverente de cadáveres o restos mortales.

d) Destinar el cementerio o sus instalaciones a actividades particulares que desnaturalicen su función.

*Artículo 15.*

Ni el Ayuntamiento ni ninguno de sus órganos ni personal, asumirá responsabilidad alguna respecto a robos y desperfectos que puedan cometerse por terceros en las sepulturas y objetos que se coloquen en los cementerios. Asimismo, el personal del cementerio no se hará responsable de la ruptura de lapidas o placas en el momento de efectuar cualquier desenterramiento.

## CAPITULO IV

## DE LA ADMINISTRACIÓN

### SECCIÓN I. LIBROS DE REGISTRO

*Artículo 16.*

Existirá un Registro Público de las sepulturas y operaciones que se realicen en el cementerio.

Este Registro Público constará de los siguientes Libros:

a) Registro General de Sepulturas y Parcelas.

b) Registro General de Nichos.

c) De Inhumaciones.

d) De Exhumaciones y Traslados.

e) De entradas y Salidas de Comunicaciones.

f) Libro de Reclamaciones.

El Registro General de Sepulturas, el de Nichos, el de Inhumaciones y el de Exhumaciones y Traslados podrán ser sustituidos por un Registro Informático.

*Artículo 17.*

El Libro Registro General de Sepulturas y Parcelas contendrá los siguientes datos:

a) Identificación de cada sepultura, con identificación de la calle, del número y del nombre.

b) Datos sobre la construcción y sus características.

c) Nombre, apellidos y domicilio del titular, que será único a partir de la entrada en vigor de la presente ordenanza.

d) Títulos que aporta y fecha de concesión.

e) Nombre, apellidos y domicilio del beneficiario o beneficiarios, en caso de que existan.

f) Sucesivas transmisiones por actos intervivos o mortis causa.

g) Fecha en que por caducidad de la concesión o por cualquier otra causa, queda la sepultura libre a disposición del Ayuntamiento.

h) Cualquier otra incidencia que afecte a la sepultura.

*Artículo 18.*

El Libro Registro General de Nichos contendrá los siguientes datos:

a) Identificación del nicho.

b) Nombre y apellidos de la persona que se va a inhumar.

c) Heriotza-eguna, dagokion ziurtagirian azaltzen denaren arabera.

d) Hileta-eskubidearen titularraren izen-abizenak eta helbidea.

e) Eskubideen mugaegunak eta ordainketak, edo, hala badagokio, aldizkako tasak.

f) Emakida iraungi delako edo beste edozein kausa dela medio hilobia Udalak erabili ahal izateko libre geratuko den data.

g) Horma-hilobiari eragiten dion beste edozein gertakari.

*19. artikulua.*

Ehorzketen Liburuan honako datu hauek bilduko dira:

a) Dagokion hilobian ehortzita daudenen izen-abizenak eta gainerako zirkunstantziak; horretaz gain, egiten diren ehorzketen datak idatziko dira.

b) Helbidea edo jatorrizko lekua eta ahaidea edo erreferentziazko pertsona.

c) Heriotza-eguna, dagokion ziurtagirian azaltzen denaren arabera.

d) Dagokionean ehorzketa baimentzen duen Epaitegia.

*20. artikulua.*

Ehorzketen eta lekualdaketen Liburuan honako datu hauek bilduko dira:

a) Ehortziko edo lekuz aldatuko den gorpua edo gorpuzkiak dagozkion pertsonaren izen-abizenak eta gainerako zirkunstantzia pertsonalak.

b) Heriotza-data.

c) Gorpua berriz ere ehorzteko eramango den lekua edo hilobia.

d) Lekualdaketa edo ehorzketa baimentzen duen agintaria eta baimena ematen den data.

II. ATALA. HORMA HILOBI INDIBIDUALAK

*21. artikulua.*

Hileta-eskubidea honako hau da: Udalak eraikitako hormahilobien erabileraren emakida aldi baterakoa izango da, eta 10 urteko epe luzaezinerako emango da, ehorzketa gauzatzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

*22. artikulua.*

Ehorzteko eskubide horien emakidak ez du esan nahi horma-hilobia saltzen denik, soilik esan nahi du Udalak errespetatu egin behar duela gorpua hilobian 10 urteko epean egotea; nolanahi ere, jabari-titularra soilik Udala izanik.

*23. artikulua.*

Emakida-epea amaitutakoan, Udalak gorpuzkiak desehortziko ditu eta hezurtegi komunera eramango ditu, baldin eta hilabeteko epean ahaideek erreklamatu ez badituzte beste hilobi batera eramateko. Kasu horretan, horma-hilobietan egon litezkeen objektu edo gauzei dagokienez, Kode Zibilaren 615. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

*24. artikulua.*

Hileta-eskubideak pertsona bakar baten izenean emango dira beti, eta hilobian sartuko den pertsona hildakoan soilik emango da emakida.

c) Fecha de la defunción, según conste en el correspondiente certificado.

d) Nombre, apellidos y domicilio del titular del derecho funerario.

e) Vencimientos y pagos de derechos o, en su caso, tasas periódicas.

f) Fecha en que por caducidad de la concesión o por cualquier otra causa, queda la sepultura libre a disposición del Ayuntamiento.

g) Cualquier otra incidencia que afecte al nicho.

*Artículo 19.*

El Libro de inhumaciones contendrá los siguientes datos:

a) Nombre, apellidos y demás circunstancias de las personas inhumadas en la sepultura que corresponda, haciendo constar las fechas de las inhumaciones que se realicen.

b) Domicilio o lugar de procedencia y familiar o persona de referencia.

c) Fecha de defunción, según conste en el correspondiente certificado.

d) Juzgado que autorice la inhumación cuando corresponda.

*Artículo 20.*

El Libro de Exhumaciones y traslados contendrá los siguientes datos:

a) Nombre, apellidos y demás circunstancias personales de la persona a la que corresponda el cadáver o los restos que van a ser objeto de la exhumación o traslado.

b) Fecha de fallecimiento.

c) Lugar o sepultura a la que se traslada el cadáver para nueva inhumación.

d) Autoridad que autoriza el traslado o exhumación y fecha de la autorización.

SECCIÓN II. DE LOS NICHOS INDIVIDUALES

*Artículo 21.*

El derecho funerario consistente en la concesión de uso de los nichos construidos por el Ayuntamiento será de carácter temporal, y se concederá por un periodo improrrogable de 10 años, a contar desde la fecha en que se produzca la inhumación.

*Artículo 22.*

La cesión de estos derechos de enterramiento no causa venta, únicamente supone la obligación del Ayuntamiento de respetar la permanencia del cadáver en la sepultura por un plazo de 10 años, correspondiendo al titular dominical únicamente al Ayuntamiento.

*Artículo 23.*

Terminado el plazo de concesión, el Ayuntamiento dispondrá de exhumación de los restos y su traslado al osario común si no han sido reclamados – en el plazo de un mes – por los familiares para trasladarlos a otro tipo de sepultura. En este caso, para los objetos o efectos que se hallaren en los nichos, se estará a lo dispuesto en artículo 615 del Código Civil.

*Artículo 24.*

Los derechos funerarios se otorgarán siempre a nombre de una sola persona, concediéndose la cesión única y exclusivamente una vez producida la muerte de la persona que vaya a ocupar la sepultura.

*25. artikulua.*

Hileta-eskubide oro dagokion erregistro-liburuan idatziko da, eta emakidak dagokion titulua emanez egiaztatuko dira. Liburu horretan honako datu hauek bilduko dira:

a) Horma-hilobiaren identifikazioa.

b) Ehortziko denaren izen-abizenak.

c) Heriotza-eguna, dagokion ziurtagirian azaltzen denaren arabera.

d) Hileta-eskubidearen titularraren izen-abizenak eta helbidea.

e) Eskubideen mugaegunak eta ordainketak, edo, hala badagokio, aldizkako tasak.

f) Emakida iraungi delako edo beste edozein kausa dela medio hilobia Udalak erabili ahal izateko libre geratuko deneko data.

g) Horma-hilobiari eragiten dion beste edozein gertakari.

III. ATALA. PANTEOIEN HILETA ESKUBIDEA

*26. artikulua.*

Panteoiak erabiltzeko hileta-eskubidea emakida-egintzaren eta dagokion Ordenantza Fiskalean ezartzen den tasaren ordainketaren ondorioz sortzen da; eta dagozkion eraikuntzak barruan gorpuak eta gorpuzkiak zaintzeko eta gordailatzeko erabiliko dira soilik, betiere Ordenantza honetan dagoen arautegiaren menpe egonik.

*27. artikulua.*

Lurzatiei buruzko hileta-eskubidearen esleipena Udalaren ebazpen bidez gauzatuko da, eta ordenantza honen eta helburu horrekin Udalak onartzen duen baldintza-orriaren arabera arautuko da.

*28. artikulua.*

Hileta-eskubidea Erregistro Orokorrean erregistratuz eta titulu izenduna emanez bermatuko da.

*29. artikulua.*

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera, ematen diren titulu izendun berriek honako datu hauek bilduko dituzte:

a) Dagokion hilobiaren edo ehorzketa-unitatearen identifikazioa.

b) Hasierako eskubideak beteta edukitzea.

c) Esleipen-data eta emakidaren esleipen-epea.

d) Titularraren izen-abizenak eta NANa; titularrak, gainera, ondorengo artikuluan zehazten dena bete beharko du.

e) «Mortis causa» onuraduna izendatzea, titularrak isilpean gorde nahi badu izan ezik.

f) Mugak, debekuak eta itxiera, hala badagokio.

g) Hala badagokio, behin-behinekotasuna deklaratzea, emandako tituluaren gainean hirugarrenak eskubide hobea izatea alde batera utzi gabe.

h) Gozamendunaren izena, hala badagokio.

*Artículo 25.*

Todo derecho funerario se inscribirá en el libro-registro correspondiente acreditándose las concesiones mediante la expedición del título que proceda, que contendrá los siguientes datos:

a) Identificación del nicho.

b) Nombre y apellidos de la persona que se va a inhumar.

c) Fecha de la defunción, según conste en el correspondiente certificado.

d) Nombre, apellidos y domicilio del titular del derecho funerario.

e) Vencimientos y pagos de derechos o, en su caso, tasas periódicas.

f) Fecha en que por caducidad de la concesión o por cualquier otra causa, queda la sepultura libre a disposición del Ayuntamiento.

g) Cualquier otra incidencia que afecte al nicho.

SECCIÓN III. DEL DERECHO FUNERARIO DE LOS PANTEONES

*Artículo 26.*

El derecho funerario al uso de los panteones nace por el acto de concesión y el pago de la tasa que se establezca en la correspondiente Ordenanza Fiscal; y se limita al uso de las correspondientes construcciones para custodia y depósito en su interior de cadáveres y restos humanos, quedando sujeto a la reglamentación contenida en la presente Ordenanza.

*Artículo 27.*

La adjudicación del derecho funerario sobre parcelas se efectuará por resolución del Ayuntamiento, y se regirá por la presente ordenanza y por el pliego de condiciones que el Ayuntamiento haya aprobado el efecto.

*Artículo 28.*

El derecho funerario quedará garantizado mediante su inscripción en el Registro General y por la expedición del título nominativo.

*Artículo 29.*

A partir de la entrada en vigor de la presente ordenanza, los nuevos títulos nominativos que se expidan, contendrá los siguientes datos:

a) Identificación de la sepultura o unidad de enterramiento de que se trate.

b) Derechos iniciales satisfechos.

c) Fecha de la adjudicación, y plazo por el que se adjudica la concesión.

d) Nombre y apellidos y DNI de su titular, que deberá cumplir lo especificado en el artículo siguiente.

e) Designación de beneficiario «mortis causa», salvo que al titular le interesase mantenerlo en secreto,.

f) Limitaciones, prohibiciones y clausura si procede.

g) Declaración, en su caso, de la provisionalidad sin perjuicio de tercero de mejor derecho sobre el título expedido.

h) Nombre del usufructuario si procediese.

*30. artikulua.*

Hileta-eskubidea honela erregistratuko da:

a) Eskatzaile baten izen pertsonalean eta indibidualean.

Ezin izango da titulartasun anizkoitzik gauzatu, baina ordenantza hau indarrean jartzen denean dauden titularrak errespetatu egingo dira. Kasu horietan, titularrek onuradun bakoitzaren izen-abizenak idatziz jaso beharko dituzte Udal Erregistroetan, baita Ordenantza honetatik ondorioztatzen diren betebeharrak betetzeko gainerakoak ordezkatuko dituenetako baten izena ere. Titular guztiak identifikatzeko eta ordezkari bat izendatzeko epea hiru hilabetekoa izango da Administrazioak egiten duen errekerimendutik aurrera zenbatzen hasita. Adierazitakoa betetzen ez bada, udalak ordezkari bat izendatuko du espedientean identifikatuta dauden titularren artetik.

b) Bi ezkontideen izena, erregimen ekonomikoa kontuan izan gabe, lehen eskuratzea gauzatzerakoan.

c) Erlijio-elkarteen edo Administrazioak halakotzat hartzen dituen ongintzako edo ospitaleko establezimenduen izenean, horietako kideek, eta babestuek eta bertan hartuek soilik erabiltzeko.

d) Korporazioen, Fundazioen edo legez eratutako Erakundeen izenean, horietako kideek edo enplegatuek soilik erabiltzeko.

*31. artikulua.*

Ezein kasutan ezin izango da hileta-eskubidea Aseguru Etxeen, Aurreikuspen Etxeen edo antzeko beste baten izenean erregistratu. Etxe horiek beste arrisku batzuen osagarri gisa beren afiliatuei, hiltzen direnerako, soilik hilobi-eskubidea bermatzen diete. Elkarte horiek honako honetara daude behartuta soilik: Aseguratuari behar den dirua ematera hilobia lortzeko.

*32. artikulua.*

1. Eskubidearen titularrei eta onuradunei dagokie beren datuen edukia eta artxibo administratuak eguneratuta edukitzea; horretarako, gertatzen diren gertakarien berri eman beharko diote Administrazioari. Udalak ez du erantzukizunik izango jakinarazpen horiek ez egiteagatik interesdunei eragin liezaiekeen kalteen gainean.

2. Ordezkarien, onuradunen, titularren eta abarren izendapena eskritura publiko bidez edo administrazio-dokumentu bidez egin ahal izango da.

*33. artikulua.*

Astigarragako Udalean hileta-eskubidearen emakidari buruzko dokumenturik ez badago, pentsatuko da, kontrako probaren bat badago izan ezik, titulua edukitzea eta hileta-eskubidea honako kasu hauetan egiaztatuta geratzen dela:

a) Panteoia eraikitzeko faktura badago.

b) Gutxienez hamar urte lehenago emandako dokumentu fede-emailearen ondoriozkoa bada.

c) Hilobian ehortzitakoekin zuzeneko ahaidetasunezko harremana badute.

d) Azken hogei urteotan, gutxienez, ez badago dagokion hileta-eskubidearen erreklamazio-espedienterik.

*34. artikulua.*

Panteoien aldizkako erabilgarritasuna Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarriko da, baita probintzian gehien saltzen diren bi egunkarietan ere panteoi horren erabileraren emakidan interesa dutenek beren eskabideak egin ahal izateko.

*Artículo 30.*

El derecho funerario se registrará:

a) A nombre personal e individual de un peticionario.

No se permitirán titularidades múltiples si bien se respetarán los existentes en el momento de entrar en vigor la presente ordenanza. En estos casos los titulares deberán consignar en los Registros Municipales el nombre y apellidos de cada uno de los beneficiarios, así como la designación de uno de ellos que represente a los demás a efectos del cumplimiento de las obligaciones que se derivan de la presente Ordenanza. El plazo para identificar a todos los titulares y para nombrar a un representante será de 3 meses contados a partir del requerimiento que se realice por la Administración. En el supuesto de incumplimiento, el ayuntamiento nombrará un representante por sorteo entre los titulares identificados en el expediente.

b) A nombre de ambos cónyuges, con independencia del régimen económico, en el momento de la primera adquisición.

c) A nombre de comunidades religiosas o establecimientos benéficos u hospitalarios reconocidos como tales por la Administración, para uso exclusivo de sus miembros y de los asilados y acogidos.

d) A nombre de Corporaciones, Fundaciones o Entidades legalmente constituidas, para uso exclusivo de sus miembros o empleados.

*Artículo 31.*

En ningún caso podrá registrarse el derecho funerario a nombre de Compañías de Seguros, de Previsión o cualquier otro similar que, exclusivamente como complemento de otros riesgos, garantizan a sus afiliados el derecho a sepultura para el día de su fallecimiento. Las citadas sociedades solamente podrán obligarse a proporcionar al asegurado el capital necesario para obtenerla.

*Artículo 32.*

1. Incumbe a los titulares y beneficiarios del derecho mantener actualizado el contenido de los datos a ellos referidos y archivos administrativos, poniendo en conocimiento de la Administración las incidencias que se produzcan. El Ayuntamiento no será responsable de los perjuicios que puedan ocasionarse a los interesados por efecto de la falta de tales comunicaciones.

2. El nombramiento de representantes, beneficiarios, titulares etc, podrá realizarse en escritura pública o en documento administrativo.

*Artículo 33.*

En el supuesto de que en el Ayuntamiento de Astigarraga no exista documento sobre la concesión de un derecho funerario, se presumirá – salvo prueba en contra – que queda acreditada la posesión del título y el derecho funerario en los siguientes casos:

a) Si existe factura de construcción del panteón.

b) Si resulta de documento fehaciente expedido por lo menos diez años antes.

c) Si les une relación de parentesco directo con las personas inhumadas en la sepultura.

d) Si en los últimos 20 años como mínimo, no existe expediente de reclamación del derecho funerario en cuestión.

*Artículo 34.*

La periódica disponibilidad de panteones se anunciará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en los dos diarios de mayor circulación de la provincia al objeto de que los que estén interesados en la concesión de su uso puedan presentar sus solicitudes.

Esleipenari buruzko prozedura, irizpideak eta gainerako zirkunstantziak kasu bakoitzean organo eskudunak ezartzen dituenak izango dira, betiere aplika daitezkeen legezko eta arauzko xedapenen arabera.

*35. artikulua.*

Araudi hau indarrean jarri aurretik emandako hilobien erabilerarako emakidak 99 urteko denboraldirako ematen dira, eta araudi honen ondoren ematen direnak gehieneko 75 urterako emango dira.

Esleipen-epea amaitu aurretik, hileta-eskubidearen luzapena eman ahal izango da (titularrak edo jaraunsleek edo kausadunek eskatuta), esleipena luzatzen denean indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera, dagozkion eskubideak ordaindu ondoren. Luzapen bakoitzak urtebetetik beherakoa ez den eta hamar urtetik gorakoa ez den iraupena izango du, gehienez ere 50 urte.

Emakidaren epea igaro ostean, titularrari Hilobien Erregistro Liburuan azaltzen den helbidean errekurrituko zaio gorpuzkiak hezurtegira eramateko eta hilobia, bestalde, Udalera itzuliko da.

*36. artikulua.*

Arautegi hau indarrean jartzen denean, iraungita dauden hileta-eskubideak (emakidan eman zirenetik 99 urte baino gehiago igaro direlako) ulertuko da 10 urtez luzatu direla isilbidez. Urte horiek igaro ostean, titularrak beste luzapen bat eskatu ahal izango du, baina luzapen horrek urtebetetik beherakoa ez den eta hamar urtetik gorakoa ez den iraupena izango du, gehienez ere 40 urte.

*37. artikulua.*

Esleitzen diren hileta-eskubidearen luzapenak Arautegi honetako 30. artikuluan ezarritako baldintzen arabera emango dira, eta, hortaz, ezin izango dira titular batenak baino gehiagorenak izan.

Horregatik, hileta-eskubidea titular bati baino gehiagori aitortzen bazaio, titularrek ados jarri beharko dute eskubidea aitortu behar zaion pertsona aukeratzeko, eta titularrak ados jartzen ez badira, arautegi honetako 43. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Luzapena esleitzen zaion titular berriak ezin izango ditu desehortzi 10 urte baino gutxiago ehortzita daramaten gorpuzkiak.

*38. artikulua.*

Hileta-eskubidearen titularrak edozein unetan izendatu ahal izango du hilobiaren onuradun bat –hura hil ondoren hilobiaren titular izango dena–, eta helburu horrekin bertaratuko da Udalera eta dagokion akta sinatuko du. Akta horretan honako datu hauek jasoko dira: Hilobiaren datuak, onuradunaren izen-abizenak eta helbidea baita dokumentuaren data ere. Akta horretan, halaber, ordezko onuraduna ere izendatu ahal izango da hura titularra baino lehenago hiltzen baldin bada ere. Bertaratu ordez notario-dokumentu bat sinatu ahal izango da.

Hileta-eskubidea bi ezkontideen izenean erosten bada, bien artetik bizirik dagoena hartuko da lehenago hiltzen denaren onuraduntzat. Bizirik geratzen denak, halaber, beste onuradun bat izendatu ahal izango du, biek elkarrekin ez bazuten izendatu biak hiltzen zirenerako.

Onuradunaren izendapena ezin izango da aldatu ez bada esanbidez egiten Udalean aurkeztutako idazki baten bitartez edo ondorengo testamentu-klausula baten bitartez.

El procedimiento, criterios y demás circunstancias relativas a su adjudicación, serán las establecidas en cada caso por el órgano competente, de acuerdo con las disposiciones legales y reglamentarias que resulten de aplicación.

*Artículo 35.*

La concesión de uso de sepulturas otorgadas con anterioridad a la entrada en vigor del presente reglamento, se conceden por un período de 99 años, y las otorgadas con posterioridad por un tiempo máximo de 75 años.

